



SARRERA PROBAK - PRUEBAS DE ACCESO
Eredua - Modelo

A3: MUSIKAREN HISTORIARI ETA MUSIKA-KULTURARI BURUZKO PROBA
A3: PRUEBA DE HISTORIA DE LA MUSICA Y CULTURA MUSICAL

1. ZATIA [15 minutu, 6 puntu 10etik]

♩ 1. entzualdia. Josquin des Prez. *Mille regretz*.

1. Zure ustez, zer garaikoa da pieza hau?

Erantzuna: Pizkundera

2. Zer generokoa da?, zein da haren egilea?

A) Guillaume Dufay-ren moteta polikorral bat da.

B) Kantu gregorianoko ereserki anonimo bat da.

C) Josquin des Prez-en abesti polifoniko bat da.

♩ 2. entzualdia. G. F. Haendel *Tamerlano*: Errezitatibo secco (zattia).

1. Nola deitzen zaio kantu estilo honi?:

Erantzun posibleak: errezitatiboa, errezitatibo secco.

2. Musika-genero hauetatik, zeinetan aurki dezakegu kantu estilo hori?

A) Operan soilik

B) Operan, oratorioan eta kantatan

C) Operan eta mezan

♩ 3. entzualdia. J. Cage. Piano prestaturako 5. sonata

1. Cage-ren sonatan interpreteak pianoaren tinbrea aldatu behar du instrumentuaren beste soinu-alderdi espezifiko bat azpimarratzeko. Zein?

Erantzun posibleak: Perkusioa, erritmoa

2. Zer urtetan estreinatu zen?

A) 1949

B) 1901

C) 1993



2. ZATIA [10 minutu, 4 puntu 10etik] [letra lodian, gezurrezkoak]

- 1. Patronatu-sistema musikari-gremioen elkarte bat da, musikarien interes profesionalak defendatzeko helburuarekin sortua.**
2. *Amodio Sorgina eta Espainiako Lorategietako Gauak* Manuel de Falla-ren obrak dira.
- 3. I. Stravinsky-ren *Udaberriaren sagaratzea* obrak onarpen bikaina izan zuen publikoaren eta kritikaren aldetik, 1913an Parisen estreinatu zenean.**
- 4. Lehenengo motetak K.o. VIII. mendekoak dira.**
5. Impresionismoa pinturarekin lotutako mugimendu bat da, eta C. Debussy-ren eta M. Ravel-en musika mugimendu horrekin lotzen da sarri.
- 6. XIX. mendeko zenbait konpositore ingelesek Bosten Taldea deitu izan zena osatu zuten, besteak, beste, Edward Elgar-ek.**
7. *Parsifal* drama wagneriano bat da, *Holandar alderraia*-ren ildo berekoa.
8. **A) Erdi Aroko trobadore eta troberoek kanta monodikoak idazten zituzten, erlijioarekin lotuta.**
9. Franz Liszt-ek musika programatiko gisa aurkeztu zuen bere *Fausto Sinfonia*:
- 10. Baxu jarraitua maileguz hartutako melodia bat da, baxuan jarrita gainerako ahotsek bikoiztu behar dutena.**
11. Hector Berlioz-ek *Sinfonia fantastikoa* idatzi zuen.
12. Beethoven-en 9. Sinfoniak ahots mistoen koru bat biltzen du laugarren mugimenduan, baita ahots bakarlariak ere.
13. A. Webern eta A. Berg A. Schoenberg-en dizipulu izan ziren.
- 14. Opera batean, aria narraziorako eta elkarrizketarako gordetzen da.**
15. Bi zati bereizten ziren Barroko aldiko opera frantsesaren oberturan: bata geldoa eta punttuen erritmoarekin, eta bestea azkarra eta fugatua.
16. Nikolaus Harnoncourt musikaren interpretazio historikoaren mugimenduaren bultzatzaile handi bat izan zen.
- 17. Antonio Vivaldi-k idatzi zituen gorde ditugun *Concerti grossi* bakarrak.**
- 18. J.S.Bach-ek oso ahots-musika erlijioso gutxi idatzi zuen, liturgia-ospakizunetan Bach organoan aritzen baitzen, inprobisatzen, batik bat.**
19. Kantu gregorianoa esaten diogu Erdi Aroan sortutako eliza kristauaren liturgia-kanten erreperitorio estandarizatuari.
20. Etnomusikologiak kultura guztien musika aztertzen du.